

MANHATTANGO ARROSAK

Bazen behin, Manhattanen, neskatila oso ausarta eta azkar bat, Phoebe izenekoa. Phoebe 7 urte zuenean auto istripu bat izan zuen, eta bere gurasoak istripu horretan hil ziren, orain bere aitona-amonekin bizi da eta bere anai nagusiarekin, Peter. Phoebe txikitatik zirujau izan nahi zuen eta orain batxilergoa bukatzen ari dela unibertsitate batera joan nahi du.

—Kaixo Pheeb! Gaur klaseko azken eguna, pozik egongo zara ezta?-Esan zuen Gracek.
—Pozik gutxi da, irrikan nago klaseak bukatzeko eta mediku izateko.
—Oraindik txorakeri horrekin? Brometan izango da ezta?..
—Ez da broma Grace, mila aldiz esan dizut hau ez dela etapa bat.
—Disfrutatu pixka bat gehiago bizitzaz.

Azkenengo klasean ez zuten ia ezer egin, irakasleekin hitz egiten eta abesten egon ziren eta klaseak bukatzerakoan, denak taberna batera joan ziren ospatzera. Tabernan zeudela albiste bat agertu zen telebistan, Manhattaneko kale batean 72 urteko gizon bat hilda agertu da arrosa batekin.

—Beste hildako bat?! Aste batean 3 hildako? Eta denak arrosa batekin? Hemen zerbait gertatzen ari da - esan zuen Phoebe.

Phoebe etxera bueltatu zenean, albiste txar bat jaso zuen, hildakoa bere aitona zen. Phoebe kristonetako amorrua sentitzen zuen, bere aitona berarentzat aita baten modukoa zen.

Aste bat pasatu zen, Phoebe etxetik irten gabe, baina geroz eta hildako gehiago agertzen ziren. Egun batzuk pasa ziren eta Phoebe poliki poliki kalera ateratzen hasi zen berriro, baina ez zen lehen bezalakoa, begiradan zerbait aldatu zitzaion, begirada serioagoa, hotzagoa. Bere buruan gauza bakarra zuen: hiltzailea aurkitzea.

Goiz batean, Grace bere etxera joan zen.

—Pheeb, mesedez, ezin duzu horrela jarraitu... denok kezkatuta gaude zuregatik.
—Ez naiz geldituko, Grace. Hau ez da amaituko nik amaitzen ez badut.
—Baina zu ez zara polizia...
—Ez, baina horrek ez du esan nahi ezin dudarik ezer egin.

Grace isilik geratu zen, ulertzen hasi zen Phoebe ez zuela atzera egingo eta horregatik berari laguntzea erabaki zuen.

Egun horretatik aurrera, Phoebe eta Grace Manhattaneko kaleetan ibiltzen hasi ziren, albisteak aztertzen, lekukoekin hitz egiten eta patroiren bat bilatzen.

Egunak pasatzen hasi ziren eta ez zuten ideiarik bez, zein izan zitekeen hiltzailea, baina beste albiste bat agertu zen, beste hildako bat, arrosa batekin ere, baina hildako hau Phoebe ezagutzen zuen, Matt Blanc, bere aitonaren lagun bat zen, txikitako lagun bat.

Hurrengo egunean Phoebe eta Grace goiz goiz esnatu ziren Matten etxera joateko informazio gehiago berreskuratzeko.

Atea jo zuten eta Matten alabak ireki zuen, oso aurpegi txarra zuen, oso triste ikusten zitzaion, begirada itzaliarekin.

—Kaixo Jennifer, asko sentitzen dugu gertatutakoaz, baina galdera batzuk egitera gatoz
—Ez dut galderarik erantzungo, pentsatzen duzue galderak erantzuteko moduan nagoela?
—Ikusi, ni Phoebe naiz, eta orain dela 2 aste nire aitona hil zuten eta hiltzailea bilatzen ari naiz.
—Sartu etxe barrura mesedez.

Grace eta Phoebe etxe barrura sartu ziren eta ordu oso batez Jenniferrekin hitz egiten egon ziren. Jenniferrek esan zien klaseko beste pertsonaren bat ere hil zutela.

—Entzun duzu Jenniferrek esan duena?! Klaseko beste pertsonaren bat hilda! Hori da patroia! Zergatik duzu triste aurpegia? Grace entzun duzu? Patroia topatu dugu! Grace?

—Bai, bai entzun dut...

—Orduan zer gertatzen zaizu?

—Patroi hori betetzen bada nire amona hurrengo izango da.

—Zure amona nire aitonaren klase berdinerara joaten zen?

—Bai, bueno, ez dakit, baina Matten klasean zegoela uste dut.

—Ba orduan goazen zure amonarengana, azkar!

Biek, Graceren amonaren etxera abiatu ziren, ziztu batean...

—Amona!!! Amona!!! Amona!!! Non dago?!

—Grace, lasaitu, agian erosketak egitera irten da.

—Nire amonak ezin du ia ibili ere egin, bost urte daramatza etxetik bakarrik irten gabe, esaten dizut ez dela erosketak egitera joan.

Grace eta Phoebe korriketan joan ziren poliziengana eta berehala Graceren amona “desagertu” moduan ipini zuten. Grace eta Phoebe ez ziren geldirik gelditu eta Graceren amonari topatzera joan ziren berehala.

—Zure amonak ez du lokalizatzailerik?

—Bai!! Erlojuan!! Orain dela urte batzuk nire amona erlojua galtzen zuen ia egunero horregatik txip bat jarri genion. Zure anaiak lagundu ahalko du ezta?

—Bai! Nire anaiak topatu dezake, orain dela urte batzuk esan zuen pirateatzeari utziko zuela baina kasu honetan lagunduko digu.

Biak, Phoeberen etxera abiatu ziren, Peterren bila.

—Peter, zure laguntza behar dugu!

—Zer nahi duzu ahizpatxo?

—Graceren amona desagertuta dago eta pentsatzen dugu aitonaren hiltzailearekin dagoela.

—Zer egin dezaket?

—Erlojuak txip bat sartuta dauka, sailatu zuk egiten dezun hackeo horrek egiten eta topatu ezazu.

—Ados, baina denbora bat beharko dut.

ordubete ondoren, Peterrek lortu zuen Graceren amonaren kokapena, fabrika batean zegoen.

—Eskerrik asko Peter, bagoaz

—Nora zoazte? Fabrikara?

—Bai, zer nahi duzu?

—Zuekin noa eta aitonaren erriflea eramango dut.

Hirurok fabrikara abiatu ziren, fabrika oso iluna eta zaharra zegoen, baina argitxo bat ikusten zen. Fabrikara sartzerakoan zarata batzuk entzuten ziren eta plastikozko poltsa batzuk ere zeuden lurretik, dena oso makabroa. Beste gela batera sartzerakoan pertsona bat aulki batera lotuta zegoen, buruan poltsa batekin.

—Hori nire amona da!!!

—Ziur zaude?

—Shhh, pertsona bat dator.

—Uste dut ezagutzen dudala, nire amonaren etxean egon zen aurreko astean, Brian Smith da. Bere anaia berak 12 urte zituenean hil zen, suizidatuta.

Brian zarata batzuk entzun zituen, eta ea pertsonaren bat zegoen egiaztatzea nahi zuen, begirada bat botatzera joan zenean, Peter eskopetarekin apuntatu zion.

—Gelditu eta askatu ezazu pertsona hori ez badezu nahi tiro bat jaso - esan zuen Peterrek.

—Brian!! Zertan ari zara?! Zu zera hiltzailea?! Zergatik?! Zer egin zizun nire amonak?!

—Niri ezer, baina nire anaia suizidatzea lortu zuten, bullying egiten zioten eta ezin izan zuen egoera ondo eraman.

—Benetan sentitzen dudala baina hori orain dela asko gertatu zen.

—Badakit, baina orain dela hilabete batzuk, nire anaiaren klasekide batekin topatu nintzen, nire anaiaren suizidioaz bromak egiten hasi zen, ez dakizue zer den hori, zer den etxera heltzea jakinda nik ez nuela ezer egin, ez nien gurasoei esan, ezta berari defendatu ere. Eta badakizue zer den hoberena? Poliziak ez zuen ezer egin, ezer!!

Polizia 15 minututara agertu zen eta Brian atxilotu zuten. Epaietan, errudun bezala adierazi zen eta bere anaiaren kasua berriz irekitzea lortu zuen.